

Funtsezko baliabideak

Gure enpresa hobetzeko eta aurrera joan dadin, hainbat baliabide erabiliko ditugu. Baliabide fisikoak, intelektuala, giza baliabideak, finantza baliabideak...

Baliabide fisikoetan, materiala, ordezkotxeak, lokala eta makinaria beharko ditugu. Horretaz gain, gure lokala Bilboko inguruneetan kokatuko da, eta autopistatik hurbil, horrela errazago izango zaie bezeroei etortzea eta bueltatzea, kokapen estrategikoa delako.

Baliabide intelektualetan, web gunea daukagu eta mundu osotik zabalduko dugu, horri esker jende gehiagori helduko zaie gure lana eta bezero gehiago izateko aukera izango dugu. Sare-sozialetako kontu bat ere izango dugu egunean jartzeko jendea eta publizitatea errezarazteko, tik tok-en irekiko dugu kontu hori, non bideo laburrak erabiliko diren gure topaketei buruz jakinarazteko eta gure tuneaketak eta zozketak erakusteko. Gero, instagramean ere kontua sortuko dugu eta bertan enpresari eta ekitaldiei buruzko informazio gehiago erabiliko da, bideo luzeagoekin eta dena pausoz pauso azalduta.

Giza baliabideetan, bakoitzak lanpostu bat edukiko dugu, batera ondo funtziona dezagun. Kepa informatika mundua eramaten duena izango da, hemen sare sozialekin eta ordenagailuekin, planoak eta 3d-ko irudiak egiten arduratuko da.

Naiak eta Eiderrek finantzak-kudeaketa arloa eta marketin arloa eramango dute. Soldatak, ordainketak, antolatketak...

Ainhizek kotxeen diseinuak antolatuko ditu eta aholkulari bezala jardungo du, bezeroek duten galderak, arazoak eta kezkak asetzeko.

Gu laurok kontuan hartuta, mekaniko bat beharko dugu autoen tuneaketak egiteko, beraz langile bat izango dugu eta soldata bat ordainduko zaio.

Web orriaren bitartez eskatzen dituzten produktuak, hau da, bidalketak, paketeria enpresa baten bitartez egingo ditugu.

Finantza-baliabideetan, aukera desberdinak izango ditugu, beraz ez da arazorik egongo ordaintzerako orduan edo dirua antolatzerako orduan.

Eskudirua erabiliko dugu, gurea eta familikoa baita, maileguak eskatuko ditugu eta kreditu-kontua ere erabilgarria izango da, hau da, diru kantitate zehatz bat emango digute txartel batean eta hori lagungarria egingo zaigu enpresarentzat batez ere hasieran aurrera eramateko. Ondoren, diru hori txartelera bueltatu beharko dugu.

Ditugun aurrezkiak erabiliko ditugu "family friends and fools" bidez ere dirua lortuko dugu eta Crowdfunding eta business angels-ak ere erabiliko ditugu. Gure enpresa aurkeztuko zaie enpresa handiei eta haiek diru laguntza bat emateko aukera dute eta baita sozioak izatea. Guzti horien bidez, diru nahikoa izango dugu enpresa aurrera eramateko. Denbora aurrera joan ahala, enpresa aurrerantz doanean, maileguen dirua bueltatuko dugu.